



Eli

Laburu Labaka

Astigarraga, 1958

Irakaslea eta gizarte mugimenduetan inplikatur. Bere militantzia nerabezaroan hasi zen, irakasle lanetan zebilela sindikatu zen politika ezkertiarrean bidea irekiz; ondoren alkate.

Profesora e implicada en movimientos sociales. Su militancia comenzó en la adolescencia; mientras trabajaba como profesora fue sindicalista, abriendo camino a la política de izquierdas; posteriormente, fue alcaldesa.



Ikus sintesia bideoan
Ver síntesis en vídeo



Ipintza baserrian jaio zen 1958ko ekainaren 14an, eta bertan egin du bizitza guztia bere ama hil zen arte. Eli hiru senidetako tartekoa da, eta emakume bakarra. Baserrian amona, haren senideak eta beste zenbait familiarteko bizi ziren.

Indarkeriak eta tratu txarrek erroz zeharkatu dute Eliren bizitza, haurtzarotik hasi eta heldutasuneko bikote harremanera arte. Banandu ondorengo hemezortzi urteak bereziki ankerrak izan dira berarentzat: **«Ipintzak niretzako oroitzapen gogorrek ditu aitaren hezteko modu bortitza batetik, biolentzia fisikoa erabiliz... Biolentzia psikologikoa, amaren rechazoa, nahi gabe egindakoa eta inkontzientea, zalantzarik gabe. Zeren eta maitasuna bazuen [...] Gerora Ipintzan daukaten oroitzapena da nire senar ohiarena, eta egin dizkidanak, gerora ikusi ditudanak, gainera. Batez ere, tratu txar psikologikoa»**. Era berean, Elik indarkeria ekonomikoa ere aipatzen du, zeina identifikatzeko zailena izan den.

Txikitatik oroitzen duenagatik, ama izan zen familiako eta etxeko kide guztiak zaintzeko ardurua gogorra zuena, eta ondorioz seme alaben zaintzarako denbora gutxi zuen: **«Gaixoak zeukan pitiborrillo (nahaspila) bat, gutxiena nahiko zuena zen... Ez zen ausartzen esatera, erlijioak ez ziolako uzten, baina ni soberan etorri nintzela, eta ondorengoa ere bai»**.

Bestalde, aitarengandik jasotako heziketari buruz, honako hau dio Elik: **«Gure heziketa ere oso gogorra izan da, bere bizipenak zirela medio (aitak ere jasan zituen tratu txarrak) [...] Askok zigortu ninduen aitak, asko jo ninduen [...] Oso zorrotza izan zen aita, (baina) bazuen maitasuna emateko gaitasuna baita ere»**.

Baserriak bi etxebizitza zituen, eta aldameneko etxebizitzan maizterrak bizi ziren. Gizon ugari bizi zen han, eta Eliren gurasoen nahia hura gizon horiengandik urruntzea zen. Izan ere, familiak lehenago lotsa handia bizi zuen izeba bat ama soltera izan zelako. Testuinguru horretan, Ipintzan Elik abusu sexuala jasan zuen maizter horietako batengandik eta isilpean gorde zuen: **«Abusu sexual hori gorde dut ia 50 urte nituen arte, ez nion inori ezer ez esan [...] Esaten banion aitari, zigorra jasoko nuen nik, ziur asko»**.

Hala ere, haurtzaro eta nerabezaroko oroitzapen politak etortzen zaizkio Eliri gogora, nebeekin jolasean eta burrukan. Dena den, familiarentzako hori ere kezagarria zen:

«Mari-mutila esaten zidaten, beti mutilekin, gainera. Nire lagunak hoberenak mutilak izaten ziren. Bi anaiek nola mutilak ekartzen zituzten etxera, ni beraiekin».

Gaur egun, Elik argi ikusten du genero-eragin handia izan zutela bere heziketan: **«Neska bakarra izate hori, rola oso markatua... Nik nere amak bezala jarraitu behar nuen besteak zaintzen [...] Elizako gauzak irakurtzen besterik ez zidaten uzten, eta beste guztia niretzako debekatua zegoen, eta niri irakurtzea ikaragarri gustatzen zitzaidan. Baina ez zidaten uzten. Josi, garbiketan, sukaldean... Hori bai [...] Emakume bezala txikitatik erlijioak eragindakoa izugarria izan da, etxean ere erlijioan oinarritutako heziketa (jaso geuelako). Ba... ni jaio nintzen jaio**

nintzenerako: errosarioak errezatu behar nituen, ez dakit zein hiltzen zenean, urtebetez... paper guzti horiek niri ematen zizkidaten. Zaindu behar nituen zaharrak, izan behar nuen txintxoaa...» .

Aldiz, familia tradizionala izan arren, Eliren amak bere seme-alabek ikastea nahi zuen. Beraz, 3 urterekin Astigarragako mojen ikastetxera eramane zuten; nahiz eta orduan ez zen hain ohikoa hain goiz eskolatzea. Eskola garaiko oroitzapen gogorrak ditu Elik. Gaztelaniaz hitz egiten ez zekienez, zigor asko jasan behar izan zituen, eta neba zaharrenarekin piper ugari egiten zuen.

Aurrerago, Nazionaletan jarraitu zuen ikasten. Bertan, familiari buruzko idazlan batean familia zaintzeko jaio zela zioen eta hori zela bere betebeharra. Idazlan hori irakurtzean, Doña Pilar irakasleak begiak zabaldu zizkion: **«"Zu ez zara horretarako jaio, zerbait gehiago egiteko balio duzu"»**. Hor ohartu zen Eli: **«"Ez naiz hain tuntuna"»**.

Irakasle haren aholkuak jarraituz, Lehen Hezkuntzan jarraitu ordez, Batxilergo Elementala egitera joan zen Hernanira 10-11 urterekin. Han ez zuen inor ezagutzen, eta beldurtuta joan zen. Bertako heziketa ere oso gogor gogoratzen du: abusuz betea, beldurra eta, ondorioz, ikastean kontzentratzeko gai ez zela. Ikasturtea errepikatu behar izan zuen, eta uste baino urtebete beranduago bukatu ikasketa ziklo hura. Bukatzean, erabaki zuen ez zuela gehiago ikasi nahi eta 14 urte zituenean etxetik lana bilatzen hasi zitaizkion familiako kideak.

Orduan, moja baten deia jaso zuten, eta mesedez, Eli ikastera bidaltzeko eskatzen zien. Elik bere amaren hitzak errepikatuz, dio: **«Besteek hiregan ez agintzeko, ikasi»**. Hor ikusi zuen Elik, bizi zuen egoeraz kontziente zela bere ama, eta ez zuela hori bera nahi bere alabarentzat.

Horrela, Idazkaritza ikasketak egin eta bulego batean hasi zen lanean, aitaren tailerreko bulegoan edota umeak zaintzen, besteak beste. Lan horrekin aspertuta, berriro ikasten hasi zen BBBa (Batxilergo Bateratu Balioaniztuna) eta UBla (Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea). Mojen ikastetxetik deitzen zioten zaintza lanetarako, eta anaia maisua zenez, bere bidez Urumea Ikastolan zaintza batzuk egiten ere hasi zen. Azkenean, haurrak harekin pozik egoten zirela ikusi zuen (bere haurtzaroko oroitzapenekiko desberdin), eta horregatik Irakasle ikasketak egin zituen eta irakasle bilakatu zen.

Nerabezaroz geroztik, Eli kultur ekintzetan eta herriko mugimendu antifaxistan inplikatur egon da: **«Kontzientzia politikoa, nire etxean, nire aitak sartu zidan»**. Francoren heriotza baina lehenago mugimendu abertzalea hasia zela gogoratzen du. Adibidez, Elizatik katekesia euskaraz jaso zuten lehen promozioa izan omen ziren. Zirrarez gogoratzen du lehenengo ikurrina jarri zuten unea: bere lagun on batek jarri zuen, eta berak dena zekien, ekintza errebelde eta eraldatzaile horren parte izan zen.

Eliren esanetan, Francoren heriotzaren ostean, bi talde zeuden Astigarragan. Alde batetik, talde abertzalea, itxuraz ukitu politikorik gabekoa (Astigar). Bestalde, talde sozialista, jendeak kutsu espainolista antzematen ziona (Gaztedi). Berak Astigar Kultur

Taldean parte hartu zuen sorreratik. Familiarekin eta taldearekin abertzaletasuna partekatzen zuen arren, Elik ez zuen taldearen epeltasuna gogoko: **«Ez nuen erabat komulgatzen Astigar taldean [...] Baina kultura aldetik bai»**. Beraz, beste zenbait ekintzetan sartua egon zen: Ikastolen alde jartzen zen, txoznan parte hartzen zuen, dantza taldean, koroan, mendi-taldean, euskarazko klaseak ematen zituen AEKn, manifestazioetara joaten zen...

Aurrerago, politikan parte-hartzea sindikatutik etorri zen: **«Urumea Ikastola oso kontserbadorea zen, eta gauzak aldatu nahi genituen [...] Haurraren bidelagun izan nahi genuen, ez instruktorea; egin nahi genuen zerbait atseginagoa»**. Irakaskuntza eraldatzeko saiakera horretan, lehenengo ELAn eta gero LABen sindikatu zen; eta horri esker kontaktatu zuten berarekin oposiziotik zerrendetarako. Lehenengo, zinegotzi izan zen, eta inguruan inpaktu handia izan zuen horrek: **«Ipintzako alaba ezkerrean»**, ez zuen inork espero. Familian ere haserrealdi ugari izan zituzten politikaren ondorioz.

Gerora, alkatetzarako aurkeztu zuen bere burua: **«Borroka bidea ikusten nuen hor»**. Orduan, 1999an alkatetza eskuratu zuen Herri Batasuna alderdiarekin. Hortaz, Eli Laburu 1995etik 1999ra oposizioan zinegotzi izan ondoren, Herri Batasuna alderdian, 1999tik 2003ra arte alderdi berarekin Astigarragako alkate izan zen. Bere alkate denboran, familiaren babesa sentitu zuen. Alde batetik, aitaren botoa jaso zuen: **«Nire aitak sinisten zuen garbi jokatu nuela eta udalerako niri eman zidan botoa»**. Bestetik, amaren laguntza izan zuen seme-alaben zaintzan. Herrian ere babes handia jaso zuen, eta baita eskuin aldeko askoren onarpena ere.

Bizitzako etapa honetan emakume izatearen ondorio latzak jasan zituen Elik. Alde profesionalari dagokionez: **«Alkate nintzela, emakume izatea izan zen lehendabiziko egunetik bizi nuen talka edo muga»**. Zenbait adibide aipatzeko gai da Eli: **«Jubilatuekin asko sufritu nuen alkate bezala, ez zuten ulertzen emakume batek, gazteak gainera, helduei aurre egitea [...] Sufritu nuen pila bat sagardogileekin [...] Mundu urbanistikoa ez da emakumeen mundua [...] Gai ez banintz bezala tratatzen ninduen (idazkariak) [...] Zenbait gizonezkoak ere autoritate nahikorik jarriko ez banu bezala tratatu ninduten»**.

Aldi berean, eremu pribatuan ere bikote harremanak gorabeherak zituen: **«Nire senar ohiak gero eta espazio gutxiago uzten zidan ni izateko»**. Egoera honek bere autoestimuan zuzeneko eragina izan zuen, eta bide batez, alkate lanetan jardutean: **«Ni ez banaiz nire nukleo familiarrean hau ondo emateko gai, nola izango naiz herri bat aurrera eramateko gai?»**.

Elire ustez, haurtzarotik heldutasunera, eremu pribatuan eta profesionalean: **«Emakume izateak toki guztietan ekarri dit traba»**.

Gaur egun, jasan duen indarkeriari buruzko kontzientzia handia du Elik, egin duen eta egiten ari den lanketa terapeutikoari esker. Biktima rola alde batera utzi du: **«Amorrua bilakatu behar da indar, energia hortik ateratzeko»**. Bere burua nolakoa den

galdetuz gero, honako hau da haren erantzuna: **«Erresilientea, ama ona, eta irakasle ona»**. Horrez gain, jasandako indarkeria jasanda ere: **«Berez oso emakume alaia naiz eta parra egin behar dut bai edo bai [...] Zakarra eta goxoa, hori etxetik datorkigu»**.

Eli nació el 14 de junio de 1958 en el caserío Ipintza, donde ha vivido toda su vida hasta la muerte de su madre. Es la mediana de tres hermanos, y la única mujer. En el caserío convivían su abuela, sus hermanos y otros cuantos familiares.

La violencia y el maltrato han atravesado la vida de Eli, desde su infancia hasta la relación de pareja en su adultez. Los dieciocho años posteriores a su separación han sido especialmente duros para ella: **«Ipintza guarda recuerdos muy duros para mí, desde la manera violenta de educar de mi padre, usando la violencia física... Violencia psicológica, el rechazo de mi madre, no intencionado y, sin duda, inconsciente. Porque ella sí que tenía amor [...] Más tarde, el recuerdo que tengo de Ipintza es el de mi exmarido y lo que me ha hecho, además de lo que he visto después. Sobre todo, el maltrato psicológico»**. Además, Eli menciona la violencia económica, que le fue especialmente difícil de identificar.

Por lo que recuerda de su infancia, su madre asumió la dura responsabilidad de cuidar a toda la familia, y apenas tenía tiempo para ocuparse de sus hijos y su hija: **«La pobre tenía un pitiborrillo (jaleo) en la cabeza, lo último que querría... No se atrevía a decirlo, porque la religión no se lo permitía, pero yo llegué de más, y el siguiente también»**.

Respecto a la educación que recibió de su padre, Eli comenta: **«Nuestra educación fue muy dura, debido a sus experiencias (mi padre también sufrió maltratos) [...] Me castigó mucho, me pegó mucho [...] Fue muy estricto, (pero) también tenía capacidad para dar amor»**.

El caserío tenía dos viviendas y en una de ellas vivían inquilinos. Vivían muchos hombres allí, y el padre y la madre de Eli querían mantenerla alejada de ellos. La familia ya había pasado mucha vergüenza porque una tía había sido madre soltera. En aquel contexto, Eli sufrió abusos sexuales por parte de uno de los inquilinos y lo guardó en silencio: **«Guardé ese abuso sexual casi hasta los 50 años, no se lo dije a nadie [...] Si se lo contaba a mi padre, seguramente me hubiese castigado a mí»**.

Sin embargo, Eli también tiene recuerdos bonitos de su infancia y adolescencia, jugando y peleándose con sus hermanos. Aunque esto también preocupaba a la familia: **«Me llamaban marimacho, siempre con los chicos, además. Mis mejores amigos eran chicos. Como mis dos hermanos traían chicos a casa, yo con ellos»**.

Hoy en día, Eli tiene claro que los roles de género tuvieron gran influencia en su educación: **«Ser la única niña, ese rol tan marcado... Yo tenía que seguir como mi madre, cuidando de los demás [...] Solo me dejaban leer cosas de la Iglesia, y todo lo demás estaba prohibido para mí, y me encantaba leer. Pero no me dejaban. Coser, limpiar, cocinar... Eso sí [...] Desde pequeña, la influencia de la religión fue tremenda; también, por la educación basada en la religión que recibimos en casa. Pues... Yo ya nací para eso: rezar rosarios durante un año cuando fallecía no sé quién... Todos esos papeles me los daban a mí. Tenía que cuidar de los mayores, tenía que ser formal...».**

A pesar de ser una familia tradicional, la madre de Eli quería que sus hijos y su hija estudiaran. Por eso, le llevó con 3 años al colegio de monjas en Astigarraga, algo poco común en aquel entonces. Eli tiene recuerdos duros de su etapa escolar. Como no sabía hablar en castellano, sufrió muchos castigos y hacía novillos con su hermano mayor.

Más adelante, continuó sus estudios en las Nacionales. Allí, en una redacción sobre su familia, escribió que había nacido para cuidar de ella y que ese era su deber. Cuando su profesora Doña Pilar leyó el texto, le abrió los ojos: **«"Tú no has nacido para eso, vales para algo más"».** Fue entonces cuando Eli se dio cuenta: **«"No soy tan tonta"».**

Siguiendo el consejo de su profesora, en lugar de continuar en la Educación Primaria, comenzó el Bachillerato Elemental en Hernani a los 10-11 años. No conocía a nadie y fue con miedo. Recuerda esa etapa como muy dura: llena de abusos y miedo, lo que le impedía concentrarse en los estudios. Repitió curso y terminó ese ciclo un año más tarde de lo esperado. Al acabar, decidió que no quería estudiar más, y a los 14 años su familia comenzó a buscarle trabajo.

En ese momento, una monja llamó a la familia pidiendo que mandasen a Eli a estudiar. Según Eli, su madre le dijo: **«Estudia, para que los demás no manden sobre ti».** Fue entonces cuando Eli se dio cuenta de que su madre era consciente de la situación que vivía, y que no quería lo mismo para su hija.

Así, Eli estudió Secretariado y empezó a trabajar en una oficina, en la oficina del taller de su padre y cuidando niños, entre otras cosas. Cansada de esos trabajos, retomó los estudios, cursando el Bachillerato Unificado Polivalente (BUP) y el Curso de Orientación Universitaria (COU). Las monjas le llamaban para trabajos de cuidado, y como su hermano era profesor, también comenzó a hacer sustituciones en Urumea Ikastola. Finalmente, al ver que los niños se sentían a gusto con ella (a diferencia de los recuerdos de su infancia), decidió estudiar Magisterio y se convirtió en profesora.

Desde la adolescencia, Eli ha estado implicada en actividades culturales y en el movimiento antifascista local: **«La conciencia política me la inculcó mi padre».** Recuerda que, antes de la muerte de Franco, ya había comenzado el movimiento abertzale. Por ejemplo, fue parte de la primera promoción que recibió de la Iglesia la

catequesis en euskera. Recuerda con emoción el momento en que izaron la primera ikurriña: lo hizo un buen amigo suyo, y ella lo sabía todo, siendo parte de esa acción rebelde y transformadora.

Según Eli, tras la muerte de Franco había dos grupos en Astigarraga. Por un lado, el grupo abertzale, aparentemente sin tintes políticos (Astigar). Por otro lado, el grupo socialista, percibido por la gente como más españolista (Gaztedi). Participó desde el inicio en Astigar Kultur Taldea. Aunque compartía el abertzalismo con su familia y el grupo, no le gustaba la tibieza del grupo: **«No comulgaba del todo con Astigar taldea [...] Pero culturalmente sí»**. Por lo tanto, estuvo involucrada en otras actividades: apoyando las Ikastolas, participando en txoznas, en el grupo de baile, coro, montañismo, dando clases de euskera en AEK, yendo a manifestaciones...

Más adelante, su participación en la política llegó a través del sindicato: **«Urumea Ikastola era muy conservadora, y queríamos cambiar las cosas [...] Queríamos ser compañeros del niño, no instructores; hacer algo más agradable»**. En ese intento por transformar la enseñanza, primero se sindicalizó en ELA y luego en LAB; gracias a ello, le contactaron desde la oposición para formar parte de las listas electorales. Primero fue concejala, lo que causó un gran impacto alrededor: **«La hija de Ipintza en la izquierda»**, algo inesperado. También hubo muchas discusiones familiares debido a la política.

Más tarde, decidió postularse para la alcaldía: **«Veía ahí un camino de lucha»**. Así, en 1999, fue elegida alcaldesa con el partido Herri Batasuna. Por lo tanto, Eli Laburu, tras ser concejala en la oposición con el partido Herri Batasuna de 1995 a 1999, fue alcaldesa de Astigarraga de 1999 a 2003 con el mismo partido. Durante su etapa como alcaldesa, sintió el apoyo de su familia. Por un lado, recibió el voto de su padre: **«Mi padre confiaba en que actuaría con honestidad y me dio su voto»**. Por otro lado, tuvo la ayuda de su madre con el cuidado de su hijo y sus hijas. También recibió un gran apoyo en el pueblo, incluyendo la aceptación de muchas personas de derechas.

En esta etapa de su vida, Eli sufrió las duras consecuencias de ser mujer. En cuanto al ámbito profesional: **«Siendo alcaldesa, ser mujer fue un choque o una barrera desde el primer día»**. Entre los varios ejemplos que menciona: **«Sufrió mucho con los jubilados como alcaldesa, no entendían que una mujer, además joven, les enfrentase [...] Sufrió mucho con los sagardogiles [...] El mundo urbanístico no es un mundo de mujeres [...] Me trataban como si no fuese capaz (el secretario) [...] Algunos hombres también me trataban como si no tuviera suficiente autoridad»**.

Al mismo tiempo, en el ámbito privado, su relación de pareja tenía altibajos: **«Mi exmarido me dejaba cada vez menos espacio para ser yo misma»**. Esta situación tuvo un impacto directo en su autoestima y, a su vez, en su labor como alcaldesa: **«Si no soy capaz de gestionar esto en mi núcleo familiar, ¿cómo voy a ser capaz de llevar adelante un pueblo?»**.

Según Eli, desde la infancia hasta la adultez, tanto en el ámbito privado como en el profesional: **«Ser mujer me ha supuesto trabas en todas partes»**.

Hoy en día, Eli tiene una gran conciencia sobre la violencia que ha sufrido, gracias al trabajo terapéutico que ha hecho y sigue haciendo. Ha dejado de lado el papel de víctima: **«La rabia debe transformarse en fuerza, de ahí sale la energía»**. Al preguntarle cómo se definiría, responde: **«Resiliente, buena madre y buena profesora»**. Además, a pesar de haber sufrido la violencia sufrida: **«Soy una mujer muy alegre y necesito reírme, sí o sí [...] Brusca y cariñosa, eso nos viene de casa»**.